

HONDARRIBIAREN JATORRIZKO ARMARRIA

Gaur egungo Hondarribiaren armarriak lau kuartel ditu. Lehenengo era jatorrezkoari beste hiru erantsi zaizkio, baina lehenaren parte bat erdi-erdian jartzen zaion armarritzoan agertzen den gaztelua izaki.

Jatorrian, 1297ko zigilu hura dugu, lau arpoilari trainerutik balearen ihizan. *Hondarribia* aldizkariaren 28. zenbakiko 9. orrialdean argitaratu nuen irudi hura, zeinek bestaldetik gaztelua zuen. Geroztik gaineratuak, leingurua, leoia eta lamiak.

Zigiluaren ondotik aurkitzen dugun lehen lekukotasuna XVI. mendeko harlandu batetan dugu, bertan, zigilu haren bi alderdietako irudiak tailaturik agertzen dira. Harri hori, askaturik, batetik bestera omen zebilen eta, gal ez zedin, Jose Garai erretoze zenak jaso eta elizaren ifarraldeko atarian jarri omen zuen, Llobregat kondeak *Fuenterrabía*. *Noticias históricas* liburuan dakarrenez. Liburu horren bigarren argitalpena baizik ez dut (1942) eta 24-25. orrialdeetan irakur daiteke eta fede ematekoa deritzat.

Armarri horretan, zigiluaren bi alderdiek zeramaten irudiak batetan biltzen dira: itsasontzi bat gazteluarekin eta, gazteluaren bi aldeetan, bi arpoilari balearen ihizan. Armarriak, azpikaldetik hasita, bere biran duen giltzean, honako idazkura du: *De la corona de Castilla, éstas son*



las armas de Frr. Esan beharrik ez dago azken *Frr.* horrekin Fontarrabie eta Fuenterrabía adierazi nahi duela.


Zer da irudien sinbolo horiek adierazten digutena? Zalantzarik gabe esan ahal genezake, lehen lehenik herri honek antzinatik zekarren balearrantzaren bizikera; bestalde, gazteluak era berean hartzen ditu hiriaren hesi eta gazteluarekin Gaztelaniaren jabetza eta babesa.

Lehen Nafarroako zen Hondarribia, errege Alfonso VIII.ak kendu zion, itsasoko bidea mozteko eta orduandik indartu zen hiribildu, gero, Karlos V.ak, enperadoreak, noski, antzinako gaztelu zaharraren

gainean eraiki zuen orain ezagutzen duguna.

Harlanduzko armarri hori, Karlos enperadorearen denbora berekoa izan daiteke, zeren estilo edo egitura Pizkunde artearen garaikoa dirudi. Historiaren argibiderako lekuko bikaina da aramarri hori.

Juan San Martin



IRAGARKIAK

Arroka-Berri

ERRETEGIA



Jaiak ondo pasa
eta txintxo ibili

Faroko Bidea
Tel.: 64.27.12
HONDARRIBIA



JATETXEA

Santiago Kalea, 67
Tel. 64 32 98
20280 HONDARRIBIA

LUR GORRI

TXOKOLATEGIA
GOZODENDA
MENUAK

Lur Gorri etxeak
Kai berri ondoan

GOSARIAK
APERITIBOAK
MERIENDAK